

## Amona turistak

AMONA MANTANGORRIAREKIN harro dago nekazaria, etengabe loriatzen du. Gorputz biguna duten intsektuen arerio izugarria da gure amona kuttuna. Heldua denean zorriak, akaroak eta kotxinilak jango ditu. Bere kumea da, ordea, zorri jaleen artean amorratuenetako. Jaiotakoan gosea zer den ezagutu ez dezan eta mardul haz dadin, kumeak emango dituzten arrautzak zorriak dauden landare muturretan bertan erruten ditu amonak. Zientoka jango ditu amona bihurtzeko metamorfosia egin aurretik. Sagastian edo baratzean amona mantangorri bat ikusten dugunero burua makurtu eta begirunea azaldu beharko genioke. Amona kuadrila erakarri eta geure baratzean, soroan, sagastian bizitzera geldiarazteko gai bagara pozoirik erabili beharrik ez.

Haragijaleak dira, batik bat, baina indarrean bizitzeko eta ugaltzeko bitamina eta bestelako osagaiak ere erantsi behar dietara. Landareen polena, nektarra eta abar jaten dute. Amonak gustura egon daitezen, bereziki atsegin dituzten landare jakin batzuk jar-

tzea komeni: gure mendietan ugaria den azenario basaka (*Daucus carota*), mihilua (*Foeniculum vulgare*), milorria (*Achillea millefolium*), ezamihilua edo aneta (*Anethum graveolens*), perrexila (*Petroselinum crispum*), sasi larranbiloa (*Anthemis arvensis*), bixeleta edo larranbilo kirastuna (*Anthemis cotula*)...

Zenbaitetan mendi tontoretan, baita hondartzetan ere, amona mantangorri saldoak topa daitezke. Itxuraz hezetasuna atsegin dute eta giro bero eta lehorrak datozenean, haiek dakartzaten haizeak berak baliatuz emigratu egiten omen dute, bizitoki freskoxeago eta hezexeagoen bila. Mendi garaietan bezala, hondartzetan ere pilatu ohi dira. Turista gisa Pirinioetako tontoretan eta Mundakako hondartzan... Gozo asko uda zakarrari aurre egiten. Geuretik ez dute emigratu beharrik izango, etorri bat etorriko dira inguruko lurralde lehorretatik... Ongi etorri amonak!

Umandik bere hiztegitzarrean amona mantangorriaren makina bat izen bilduak ditu: katalin gorri, marigorri, amona mantangorri,



THOMAS BRESSON-CC BY

amona gonagorri, andere kotagorri, andre gonagorri, euli bearrigorri, kanaketa, gonagorri, katalin gorri, jaungoikoilar, kotagorri, labagorri, amona gorri, mantagorri, maria gonagorri, mariana gorri-gorri, mari gonagorri, mari gorri, mari gorringo, maritxo teiletako, matxin gorri, matxin gorringo, taskorri, kastorri, maritxu teilatuko, txipilota gonagorri, mamanton gonagorri... Batean eta bestean gehiago ere izango dira. Euskaldunontzat etxeko eta, nolabait, garrantzitsu izan denaren adierazle. ■



### Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Entzun nizin irratian intxaurrak berde daudenean jarri behar direla hondarrez betetako ontzi batean. Galdera da: orain berde daudela, edo abuztuan, oraindik arbolan daudenean? Ondo izan!

**Ramon Etxeberria**

Kaixo Ramon. Gero jaso behar dira, intxaurrondotik erortzen direnean. Lurretik bildu eta hondar artean jarri. Ontzi batean geruza bat hondar, gainean intxaurrak, beste geruza bat hondar... Hondarra eta intxaurrak tartekatatu.



JOSU ORBE-CC BY SA

Ontziak zuloak izan behar ditu azpiko aldean. Kanpoan utzi, intxaurrek negua sentitu dezaten; euria hartu behar dute. Udaberriarekin, intxaurren kimuak azalduko dira. Hondarretatik atera eta lurrean erein. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.eus](mailto:landareak@argia.eus) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.